



INFORMAZIO-OHARRA

COVID-19A DELA ETA HIRI HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUAN ETA LAUDIOKO GARBIGUNEAN PREBENTZIO-NEURRIAK.

COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua betez, eta Gobernuak, erakunde publikoek eta, zehazki, Osasun Ministerioak hartutako neurrien alde, etxeko hondakinak eta antzekoak bildu eta garraiatzeko zerbitzuetarako aldi baterako neurri hauek ezartzen dira Aiarako Kuadrillan:

- **Hiri-hondakin solidoen bilketa:** edukiontziak biltzeko zerbitzua aldi horretan **ohiko moduan jarraituko du**. Hala ere, kutsadura-arriskuak minimizatzeko, herritarrei eskatzen zaie edukiontzietatik kanpo hondakinik ez uzteko, edukiontziak eskuz ez ukitzeko eta pedalei lehentasuna emateko.
- **Laudioko Garbigunea:** alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, eta 463/2020 Errege Dekretuan pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatzen dela gogorarazteko, ahal den neurrian, Garbigunera ez joatea gomendatzen da. Nolanahi ere, osasun-agintariak emandako gomendioak eta betebeharrak errespetatu beharko dira eremu horretan, eta zerbitzua ematen duten langileen jarraibideak bete beharko dira.
- **Traste handiko bilketa:** zerbitzu hau behar-beharrezkoa den kasuetan soilik erabiltzeko eskatzen zaie herritarrei. Neurri horrek bilketa-zerbitzuko langileen kutsatze-arriskuak minimizatzen lagunduko du, bai eta edukiontzietan, postontzietan eta bilketa-puntuetan ohikoak direnak baino garbiketa zorrotzagoak egiteko baliabide gehiago izateko ere. Gogoan izan, nahitaezkoa dela 900 101 476 telefonora deitzea edo "Linea Berdea" aplikazioan abisua uztea, tamaina handiko tresnak kalera ateratzeo.

Herritarrei jakinarazten zaie, COVID-19 dela eta, zerbitzuaren enpresa esleipendunak barne-protokolo batzuk ezarri dituela herritarren konpromisoa eta Administrazio Publikoak eta Osasun Ministerioak bultzatutako eskakizunak betetzeko, zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatzeko eta langileen artean koronabirusa ugaritzea prebenitzeko.

Herritarrei eskatzen diegu, mesedez, osasun-jarraibideak eta gomendioak bete ditzatela, arrisku-faktoreak minimizatzeko, osasun-sistema ez gainditzeko eta kutsatzeko arriskua ahalik eta gehien murrizteko.

Denon esku dago birusaren eragina eta hedapena geldiarazi ahal izatea.

Aiarako Kuadrillaren Presidentea
Encina Castresana Astarloa

